

Egilea: Nahia Jiao Lizarralde Fernandez

EMAKUMEAK ERE PROTAGONISTAK IZAN DAITEZKE

Zer da protagonista izatea? Protagonista, istorio edo kontakizun batean azaltzen den pertsonaia nagusia, garrantzitsuena edo lehen planoan agertzen dena da. Historiaren kasuan ere, horrela izaten da. Eta bai, galdetzen baduzu, historiak baditu protagonistak. Nola lortu zuten protagonistak izatea? Protagonista izateko bide asko daude. Esaterako, gauza garrantzitsuak egin, gauza berriak aurkitu edo deskubritu, boterea izan, eta beste hainbat ere bai. Historian zehar pertsonai asko egon dira, zoritxarrez, gehiengoak gizonezkoak dira. Emakumeak beti izan dira salbuetsiak; hala ere, horrek ez du esan nahi emakume protagonistarik egon ez denik.

Ilido honi eutsiz hitz egin dezagun historian zehar egon diren emakumeei buruz. Historiak beti irudikatu ditu emakume ahulak, biktimak, inutilak... Betidanik izan gara salbuetsiak, eta orain arte emakumeak etxeko eta familiaren zaintzan egon dira. Euskal Herriko historian emakume ezagunenak sorginak izaten ziren. Eta ez gauza onak egiteagatik, baizik eta sorginkerian, akelarreetan... egoteagatik. Nola identifikatzen zituzten sorginak zirela? Emakume horiek sendagaietan espezializatzen ziren, besteak beste, hau da, belarrekin botikak egiten. Garai haietan, oso famatua izan zen sorginen ehiza. Norbaitek susmoa baldin bazuen beste norbaitengan sorginkeri mundua ibiltzen zela, "sorgina" salatua izaten zen. Berak egindako bekatua barka ezina izaten zenez herritar guztiak elkartu eta su handi bat egiten zuten, horrela "sorgina" biluztu eta bizirik zegoen bitartean su gorritan erretzen zuten.

Gerra garaian, gizonezkoak erreklutatuak izaten ziren, hori dela eta, emakumeak etxean gizonezkoen lanak ere egin behar izan zituzten. Eta ez hori bakarrik, gerran gizonezkoak falta baziren, emakumeak gerrara joan beharra izaten zuten hutsune horiek betetzeko. Adibidez, "Gaueko sorginak" izendatutako emakume sobietarrak. Gaur iritsitakoan isil-isilik hegazkinetatik kontrako bandoari erasotzen zioten. Nahiz

eta, emakume hauek arriskutsuak kontsideratuak izan, gerraren ondoren ez zuten ohorerik eta esker onik jaso.

Dena dela, nire ustez gure gizarteak ez du emakumeek egin duten funtsezko lana balioztatu. Izan ere, historian kontatzen diren gertaeretan garrantzizko pertsonaiak aipatzen dira bakarrik, eta ez dira kontutan hartzen itzalean geratu diren funtsezko protagonistak.